

**3.- AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK**

Atal honetan honako alderdi hauek jaso dira: Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) 2013-2016 epealdirako nazioarteko ekonomiari buruz egin dituen aurreikuspenak, Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak datorren urterako prestatutako egoera makroekonomikoa, Eusko Jaurlaritzak egin dituen aurreikuspenak, eta azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren ekitaldiko sarreraren aurreikuspena egiteko Gipuzkoako ekonomian kontuan hartu dituen aldagaiak.

3.1.- Nazioarteko Diru Funtza (NDF)**3.- PREVISIONES ECONÓMICAS**

En este apartado se recogen las previsiones económicas internacionales para el periodo 2013-2016 realizadas por el Fondo Monetario Internacional, el escenario macroeconómico para el próximo año elaborado por el Ministerio español de Economía y Hacienda, las previsiones del Gobierno Vasco y las variables de la economía del Territorio Histórico que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tenido en cuenta para la previsión de sus ingresos en el próximo ejercicio.

3.1.- FMI

3.1.1. taula.- NMF: Nazioarteko ekonomiaren aurreikuspenak
Cuadro 3.1.1.- FMI: Previsiones económicas internacionales

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2013	2014	2015	2016
BPG (Bolumen %-aren Δ) / PIB (Δ % volumen)				
Mundu osoa / Total mundial	3,4	3,4	3,3	3,8
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	1,4	1,8	2,1	2,4
Estatu Batuak / Estados Unidos	2,2	2,4	2,5	3,0
Japonia / Japón	1,6	-0,1	0,8	1,2
Erresuma Batua / Reino Unido	1,7	2,9	2,4	2,2
Eurogunea / Zona euro	-0,4	0,8	1,5	1,7
Garapen bidean dauden herriak eta indartzen ari diren merkatuak / Países en desarrollo y mercados emergentes	5,0	4,6	4,2	4,7
KONTSUMO PREZIOAK / PRECIOS CONSUMO (Δ %)				
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	1,4	1,4	0,4	1,4
Estatu Batuak / Estados Unidos	1,5	1,6	0,1	1,5
Japonia / Japón	0,4	2,7	1,0	0,9
Erresuma Batua / Reino Unido	2,6	1,5	0,1	1,7
Eurogunea / Zona euro	1,3	0,4	0,1	1,0
Garapen bidean dauden herriak eta indartzen ari diren merkatuak / Países en desarrollo y mercados emergentes	5,9	5,1	5,4	4,8
LANGABEZIA / DESEMPLEO				
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	7,9	7,3	6,9	6,6
Estatu Batuak / Estados Unidos	7,4	6,2	5,5	5,1
Japonia / Japón	4,0	3,6	3,7	3,7
Erresuma Batua / Reino Unido	7,6	6,2	5,4	5,4
Eurogunea / Zona euro	11,9	11,6	11,1	10,6
MUNDUKO MERKATARITZA (bolumen %-aren Δ)	3,3	3,2	4,1	4,4
COMERCIO MUNDIAL (Δ % volumen)				

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (NDF).

Fuente: Fondo Monetario Internacional (FMI).



Uztailean NDFk munduko ekonomiarako egin zituen aurreikuspenen arabera, hazkundeak %3,3 izango da 2015ean eta %3,8 2016an. Ekonomia aurreratuen gorakadak lagunduko du hazkundeak gora egin dezan, baita petrolioaren prezioak jaisteak ere, Estatu Batuetan batik bat. Gorabidean dauden merkatuetan, ordea, aurreikuspena da 2015ean hazkundeak behera egingo duela bosgarren urtez segidan, eta horren arrazoiak dira petrolioaren esportatzen duten herrialdeen hazkunderi buruz beherantz egin diren aurreikuspenak, Txinaren dezelerazioa, eta beste lehengai batzuetan prezioen beherakada dela-eta Latinoamerikarako espero den okertze jarraitua. Gorabidean dauden merkatuen gorakadak munduko hazkunderaren indarberritze bat ekar dezake 2016an, batik bat barne eskaria eta produktzioa gai izango direlako hainbat ekonomiatan (Brasil eta Errusian, esate baterako) izandako gorabeherak neurri batean gainditzeko —tentsio geopolitikoek eragindako gorabeherak—.

Estatu Batuetan, oraindik baldintzak betetzen ari dira ekonomiaren susperraldiak indar handiagoz segi dezan: energiaren prezioak nabarmen jaitea, inflazioa handia ez izatea, zama fiskala murriztea, balantzeak indartzea, eta etxebizitzaren merkatua hobetzea. Elementu horiek soberan konpentsatuko dute dolarraren indartzeak esportazio garbirako dakarren traba.

Eurogunean susperraldiak jarraipena izan zuen 2014an, baina inbertsio pribatuak ahula izaten segitu zuen, hiru salbuespen nabarmen eginda: Irlanda, Espainia eta Alemania. Petrolioaren merkatzea, interes tasen jaitsiera, euroaren balio-galera eta presio fiskal neutralagoa lagungarri gertatuko dira 2015-2016 urteetan jardura bultzatu dadin. Aldi berean, hazkunde potentzialak ahula izaten segitzen du, alde batetik, krisialdiaren ondorioengatik, eta, bestetik, krisia baino lehenagotik datozen bi faktorerengatik, faktore demografikoengatik eta produktibitatearen dezelerazioengatik, hain zuzen. Horrez gain, hazkunde moderatua eta inflazio txikia espero dira. 2015ean eta 2016an, hazkundeak Alemanian, Frantzian, Italian eta Espainian berpiztuko da.

Las previsiones que el FMI realizó en julio para la economía mundial establecen unos crecimientos del 3,3% y el 3,8% para 2015 y 2016, respectivamente. El aumento del crecimiento estará alimentado por el repunte de las economías avanzadas, respaldado por el retroceso de los precios del petróleo, con Estados Unidos a la cabeza. En los mercados emergentes, por el contrario, se proyecta que el crecimiento disminuirá en 2015, por quinto año consecutivo, debido a las fuertes revisiones a la baja del crecimiento de los países exportadores de petróleo, la desaceleración de China y la continua desmejora de las perspectivas de América Latina resultante de la caída de los precios de otras materias primas. Se presume que el repunte de los mercados emergentes impulsará la reactivación del crecimiento mundial en 2016, principalmente porque la demanda interna y la producción se recuperarán en parte de los reveses sufridos (causados entre otras cosas por tensiones geopolíticas) en una serie de economías, por ejemplo, Brasil y Rusia.

En Estados Unidos, siguen estando dadas las condiciones propicias para que la recuperación repunte con más fuerza: la fuerte caída de los precios de la energía, la suavidad de la inflación, la disminución del lastre fiscal, el fortalecimiento de los balances y la mejora del mercado de la vivienda. Estas fuerzas compensarán holgadamente el lastre que el fortalecimiento del dólar significa para la exportación neta.

La zona euro continuó recuperándose en 2014, pero la inversión privada siguió siendo débil, con las notables excepciones de Irlanda, España y Alemania. El abaratamiento del petróleo, la disminución de las tasas de interés y la depreciación del euro, sumados a una orientación fiscal más bien neutral, impulsarán la actividad en 2015-2016. Al mismo tiempo, el crecimiento potencial continúa siendo débil, como consecuencia de los legados de la crisis, factores demográficos y una desaceleración de la productividad total de los factores que se remonta a momentos previos a la crisis. Por ende, se prevé un crecimiento moderado y una inflación atenuada. El crecimiento se reavivará en 2015 y 2016 en Alemania, Francia, Italia y España.



3.2.- ESPAINIAR ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA 2015-2018 EPEALDIRAKO

Espainiako Estatuan, 2015. eta 2016. urteetako batez besteko hazkunde aurreikuspena %2,9 inguru da. Gehikuntza horren azpian dauden arrazoiak hiru lirateke: konfiantza eta enplegua hobetu izana, kreditura errazago iritsi ahal izatea, finantzak saneatzeko prozesua amaitu izanak lagundua, eta prezioak eta interese tasak moderatzea. Eredu horrek hazkunde orekatua erakusten du, eta kanpo zein barne eskarian du euskarria.

Etxeetan eta enpresetan gertatzen ari den desapalankamendu prozesuak eta kreditura gehiago jotzeak nabarmen erakusten dute jarduera ekonomikoa testuinguru hobean mugitzen ari dela aurreko urteen aldean. Aldaketa horrek gehi 2014an kontsumoak izan duen susperraldi nabarmenak pentsarazten dute hemen aztertutako epealdian barne eskariak dinamismoari eutsiko diola lan merkatuaren portaera onak errenta erabilgarria handitzeagatik, 2014an onartutako erreforma fiskalagatik, eta konfiantza berreskuratzeagatik.

Enplegua berreskuratzearen ondorioz, zeina 2015etik aurrera indar handiagoz haziko baita, langabezia tasa pixkanaka jaitsiko da, eta 2018an biztanleria aktiboaren %15,6an kokatuko da.

Okupaziorako eta BPGerako aurreikusitako berreskuratze erritmoek %0,1 jaisten dute 2015ean itxurazko produktibitatea okupatu bakoitzeko; azken bi urteetan, ordea, igoera txikia ematen diote (%0,1). Aldi berean, produktibitatearen eta soldaten bilakaerak berak eraginda, kostu laboral unitarioak gorantzako bidean hasiko dira modu leunean, eta 2014ko -%0,4tik %1,4ra pasako da 2018an.

BPGaren osaketari dagokionez, hazkunde ereduaren zuzenketa bat aurreikusten da 2015-2018 epealdian, barne eta kanpo eskarien arteko ekarpena orekatuagoa izango baita. 2015ean, kanpo sektorearen kontribuzioa sei dezima hobetzea espero da 2014. urtearen

3.2.- CUADRO MACROECONÓMICO DEL ESTADO ESPAÑOL PARA EL PERIODO 2015-2018

En el **Estado español**, la previsión de crecimiento para el promedio de 2015 y 2016 se coloca en torno al 2,9%. Este incremento se fundamenta, en la mejora de la confianza y el empleo, el mejor acceso al crédito, favorecido por la culminación del proceso de saneamiento financiero, así como en el contexto de moderación de precios y tipos de interés. Se trata de un patrón de crecimiento equilibrado, apoyado tanto en la demanda externa como en la interna.

El continuo proceso de desapalancamiento de hogares y empresas junto a un mayor acceso al crédito supone una mejora sustancial del contexto en el que se desenvuelve la actividad económica con relación a años anteriores. Este cambio, unido a la sensible recuperación del consumo en 2014, hace prever que la demanda interna prolongue su dinamismo en el horizonte temporal considerado, impulsada por el incremento de la renta disponible fruto del buen comportamiento del mercado de trabajo, del efecto de la reforma fiscal aprobada en 2014, y de la recuperación de la confianza.

Como resultado de la recuperación del empleo, que crecerá con mayor intensidad a partir de 2015, la tasa de paro se reducirá progresivamente, situándose en el 15,6% de la población activa en 2018.

Los ritmos de recuperación previstos para la ocupación y el PIB reducen ligeramente la productividad aparente por ocupado en 2015 (-0,1%) para registrar un ligero crecimiento, del 0,1%, en los dos últimos años. Al mismo tiempo, y derivado de la propia evolución de la productividad y de los salarios, los costes laborales unitarios iniciarán una senda moderadamente creciente, pasando del -0,4% en 2014 al 1,4% en 2018.

En relación con la composición del PIB, se prevé una corrección del patrón de crecimiento en el periodo 2015-2018, con una aportación más equilibrada entre la demanda interna y la externa. Se estima una mejora en la contribución del sector exterior de seis décimas



aldean. Hurrengo urteetan, kanpo sektorearen ekarpena positibo bihurtuko da, eta 0,1 puntu portzental ingurukoa izango da haren kontribuzioa. Bilakaera hori ulertzen da esportazioen dinamismoarenagatik, lehiakortasunean irabazteak bultzatu dituelako esportazioak, eta, bereziki lehen bi urteetan, helmugako merkatuen hobetzeagatik eta euroaren balio-galeragatik. Bestalde, inportazioek hedatzen segituko dute barne eskariaren bilakaerari jarraituz, baina aurreikusitako epealdiaren amaieran zerbait moderatuko dira. Testuinguru horretan, ekonomiak finantzaketa-ahalmen jarraitua izango du munduko beste herrialdeen aurrean, eta 2018an ahalmen hori BPGaren %1,4koa izango da.

Barne eskariak BPGaren hazkunderako izango duen ekarpen positiboa etorriko da, alde batetik, kontsumo pribatuaren portaera onagatik, zeinari kontsumo publikoaren ekarpen txikia ere gehitzen baitzaio – gehiegizko defizitaren amaierari esker–, eta, bestetik, kapitalean egindako inbertsioaren joera hedakorragatik. Kontsumo pribatuak bizitasun handia ageri du aztertutako epealdiko lehen urtean (hazkundera %3,3 da 2015ean), baina hurrengo urteetan joera moderatu eta %2,5eko hazkundera ematen du 2018an. Bilakaera horren atzean daude, alde batetik, erabilgarri dagoen errentaren bilakaera bera, eta, bestetik, prezioen eta interese tasen jaitsierak hobetzen dituen espektatiba ekonomikoak.

Bestalde, nabarmentzekoa da ekipoetan eta bestelako produktuetan izango den inbertsioa, goranzko joerari eutsiko baitio, besteak beste, espektatibak hobetzeagatik, enpresek hasitako desapalankamendu prozesuak aurrera segitzeagatik (presio finantzarioak desagerrarazten ditu eta inbertitzeko baliabideak liberatzen ditu), eta jarduera kreditizioa, sektore produktiboari zuzendutakoa bereziki, berreskuratzeagatik. Gainera, inbertsioaren bilakaerak eraikuntzako inbertsioaren susperraldia izango du lagungarri, etxebizitzaren eraikuntzazatik bereziki. Izan ere, osagai horrek 2015ean gora egiten du lehenengo aldiz, eta zeinu positiboa berrekuratzeko du zazpi urtean etengabe jaitsi eta gero.

en 2015 respecto a 2014. En los años siguientes, la aportación del sector exterior pasará a terreno positivo con una contribución en el entorno de los 0,1 puntos porcentuales. Esta evolución es el resultado del dinamismo de las exportaciones, que vienen impulsadas por las ganancias de competitividad y, especialmente en los dos primeros años, por la mejora de los mercados de destino y la depreciación del euro. Por su parte, las importaciones continuarán su expansión, en línea con la evolución de la demanda interna, si bien se moderan ligeramente al final del periodo de previsión. En este contexto, la economía presentará una capacidad de financiación sostenida frente al resto del mundo, situándose en el 1,4% del PIB en 2018.

La contribución positiva de la demanda interna al crecimiento del PIB vendrá determinada, por un lado, por el buen comportamiento del consumo privado, al que se une una ligera aportación del consumo público plenamente compatible con el final del procedimiento de déficit excesivo, así como por el tono fuertemente expansivo de la inversión en capital. La evolución del consumo privado, con un fuerte dinamismo en el primer año del horizonte de previsión (crecimiento del 3,3% en 2015) y una ligera moderación en los años siguientes hasta el 2,5% en 2018, viene sustentada en la propia evolución de la renta disponible y en las mejores expectativas económicas en un contexto de moderación de precios y tipos de interés.

Por otro lado, destaca el dinamismo de la inversión en equipo y otros productos, que mantendrá su senda expansiva impulsada, entre otros factores, por la mejora de las expectativas, la evolución de las exportaciones, la continuación del proceso de desapalancamiento emprendido por las empresas (que elimina presiones financieras y libera recursos para la inversión) y la recuperación de la actividad crediticia, principalmente hacia el sector productivo. Además, la evolución de la inversión se verá favorecida por la recuperación de la inversión en construcción, sobre todo de su componente residencial, que crece por vez primera en 2015, recuperando el terreno positivo tras siete años consecutivos de caídas.



Aztertutako lehen bi urteetan, esportazioak azkartu egiten dira kostuen moderazioagatik, gure esportazio merkatuek eskaria irabazteagatik eta euroaren eta dollarraren arteko truke tasa mantentzeagatik. Ondasun eta zerbitzuen inportazioek, beren aldetik, hedapenaren bidetik jarraituko dute, amaierako eskariaren bilakaerarekin bat, eta 2018an haien hazkunde tasak %6tik gora egongo dira, esportazioenak baino gehixeago.

Espainiako ekonomiaren desorekak zuzentzeko prozesuan, prezioen egonkortasunak beraldiko garrantzia segituko du izaten. Barne eskariak bultzada hartzen duen arren, kontsumo pribatuaren deflatorearen hazkunde erritmoa %2tik behera mantentzen da 2015-2018 epealdian.

Prezioen gainean presiorik ez egoteak lehiakortasuna irabaztea ekarriko du berekin, esportazioak hobetzen lagunduko du, eta eragin positiboa izango du bai soldaten moderazioan eta bai familien errenta erabilgarrian. Petrolioaren prezioak merkatzeak kontsumo pribatuaren deflatoarea jaitsaraziko du 2015ean. Hala ere, BPGaren deflatoorean izango duen eragina inportazioen deflatoarea jaisteak konpentsatuko du.

Las exportaciones se aceleran en los primeros dos años de previsión por la moderación de los costes, la creciente demanda de nuestros mercados de exportación y el mantenimiento del tipo de cambio euro/dólar. Por su parte, las importaciones de bienes y servicios mantendrán su senda de expansión, en línea con la evolución de la demanda final, alcanzando en 2018 tasas de crecimiento por encima del 6%, ligeramente superiores a las de las exportaciones.

En el proceso de corrección de los desequilibrios de la economía española, la estabilidad de los precios seguirá jugando un papel relevante. A pesar del impulso de la demanda interna, el ritmo de crecimiento del deflactor del consumo privado se mantendrá durante el periodo 2015-2018 por debajo del 2%.

La ausencia de presiones sobre los precios seguirá teniendo su reflejo en ganancias de competitividad, favoreciendo el comportamiento de las exportaciones, e influyendo positivamente tanto en la moderación salarial como en la renta disponible de las familias. El descenso de los precios del petróleo llevará en 2015 a una caída del deflactor del consumo privado, si bien su efecto sobre el deflactor del PIB quedará compensado por el descenso del deflactor de las importaciones.



3.2.1. taula.- Estatuko proiektzio makroekonomikoak
Cuadro 3.2.1.- Proyecciones Macroeconómicas del Estado

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2014	2015	2016	2017	2018
BPG ETA GEHITUAK (BENETAKO %-ren Δ)/ PIB Y AGREGADOS (Δ % REAL)					
Familien amaierako kontsumoaren gastua / Gasto en consumo final hogares (1)	2,4	3,3	2,9	2,7	2,5
Amaierako kontsumo publikoaren gastua / Gasto en consumo final público	0,1	0,1	0,1	1,0	1,5
Kapital eraketa gordina / Formación Bruta Capital	3,4	6,3	5,8	5,9	5,9
Izakinen bariazioa / Variación existencias (2)	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0
Barne eskaria/ Demanda interna	2,1	3,2	2,9	3,0	2,9
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa / Exportación de Bienes y Servicios	4,2	5,4	6,0	5,8	5,7
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa / Importación de Bienes y Servicios	7,6	6,7	6,4	6,3	6,2
Kanpoko saldoa/ Saldo exterior (2)	-0,8	-0,2	0,1	0,0	0,1
Barne produktu gordina / Producto Interior Bruto	1,4	2,9	2,9	3,0	3,0
PREZIOAK ETA KOSTUAK (Δ %) / PRECIOS Y COSTES (Δ %)					
BPGaren deflatoarea / Deflactor del PIB	-0,5	0,6	0,9	1,2	1,6
LAN MERKATUA / MERCADO DE TRABAJO					
Enplegua, guztira (bariiaz. %tan) / Empleo Total (variac. en %)					
Langabezia (biztanleria aktiboaren %) / Paro (% de la población activa)	1,3	3,1	3,0	2,9	2,9
	24,4	22,1	19,8	17,7	15,6

(1) Etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak sartzen dira / Incluye las instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares

(2) BPGren hazkunderako laguntza / Contribución al crecimiento del PIB.

3.3.- EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren 2015erako eta 2016rako taula makroekonomikoa berritu du. EAEko ekonomiak susperraldia sendotzeko joera erakutsiko duela biurteko horretan aurreikusten da. Hain zuzen ere, hazkundera %2,5 izango da 2015ean eta 2016an. Barne eskariak bizitasuna berreskuratuko du eta BPGaren hazkunderari ekarpen handiena egingo dio.

3.3.- GOBIERNO VASCO

La Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco ha revisado el cuadro macroeconómico de la economía vasca para los años 2015 y 2016. Se prevé que la economía vasca describa una tendencia de consolidación de la recuperación en todo el horizonte temporal. Así, su crecimiento se cifrará en el 2,5% en 2015 y en 2016. La demanda interna recuperará dinamismo y será el componente que mayor aportación realice al crecimiento del PIB.



3.3.1. taula.- EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK
Cuadro 3.3.1.- PREVISIONES PARA LA ECONOMÍA VASCA

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	III tri./hir. 2015	IV tri./hir. 2015	2015	2016
BPG / PIB	2,6	2,5	2,5	2,5
Azken kontsumoa / Consumo final	2,2	2,0	2,2	1,8
Kontsumo pribatua / Consumo privado	2,6	2,3	2,6	2,1
Kontsumo publikoa / Consumo público	0,9	0,9	0,7	0,6
Kapital eraketa gordina / Formación bruta de capital	2,5	3,0	2,2	3,1
Barne eskariaren ekarpena / Aportación demanda interna	2,4	2,3	2,3	2,2
Kanpo saldoaren ekarpena / Aportación saldo exterior	0,2	0,2	0,2	0,3
BPGaren deflatoarea / Deflactor PIB	0,3	0,5	0,1	1,0
Enplegua / Empleo	1,8	1,7	1,6	1,7
Langabezia tasa / Tasa de paro			14,0	12,9

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.
Fuente: Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco.

Aztertu behar den eta taula makroekonomiko guztien atzean dagoen aldagai garrantzitsu bat petrolioaren salneurriak etorkizunean izango duen bilakaera da. Azken aldian gertatu den beherakada garrantzitsuak baliabideak aurrezteko ahalbidetu du, kontsumora eta inbertsiora bideratzeko. Aurrekoaz gain, euroaren balio galera ere kontuan hartu behar da, esportazioak areagotu dituelako. Etorkizunari begira, eszenategi asko eratu dira petrolioaren salneurriak epe laburrean eta ertainean erakutsiko duen bilakaeraz. Halere, oinarriko hipotesiak goranzko joera apala iragartzen du, eskaria eta eskaintza beste oreka bat lortuta. Kasu horretan, erauzteko metodo berriek eta energia iturrien dibertsifikazioak eskaintza handituko dutela eta erreserben prezioa egokituko dutela aurreikusten da.

Truke tasari dagokionez, euroak dolarraren aldean balioa galtzen jarraituko duela aurreikusten da, EBZk bonuak erosteko egitasmoari eutsiko diolako eta interes tasen arteko diferentzialak bere horretan jarraituko duelako.

Una variable clave que se debe analizar y que está detrás de todos los cuadros macroeconómicos es la evolución futura de los precios del petróleo. La importante caída que se ha registrado en los últimos periodos ha permitido ahorrar recursos para destinarlos al consumo y a la inversión. Unido a esto se encuentra la depreciación del euro, que ha incentivado las exportaciones. De cara al futuro, se plantean numerosos escenarios sobre la evolución a corto medio plazo del precio del petróleo. No obstante, la hipótesis básica presupone una tendencia alcista pero moderada del precio, ante un nuevo reequilibrio entre oferta y demanda. En este caso, se prevé que las nuevas formas de producción y la diversificación de fuentes energéticas aumentarán la oferta y reevaluarán el precio de las reservas.

Respecto al tipo de cambio, se prevé una prolongación de la depreciación del euro frente al dólar, favorecida por el mantenimiento del programa de compra de bonos del BCE y los diferenciales de tipos de interés.



EAEko ekonomiaren hazkundearen motorra barne eskaria izango da eta hazkunde horri aurten egingo dion ekarpena 2,3 puntukoa izango da, datorren urtekoa 2,2 puntura mugatuko delarik. Familien gastua kontsumoan nabarmen areagotuko da. Datozen hiruhilekoetan, enplegu gehiago sortuko dela aurreikusten da, interes tasan txikiak izango dira, kreditua lortzeko baldintzak hobek izango dira eta inflazioa apala izango da. Horiek guztiek kontsumitzaileen konfiantza areagotuko dute. Kapital eraketa gordinari dagokionez, aurreikuspenek nolabaiteko sendotasuna iragartzen dute, 2015ean eta 2016an bizkortzeko joera garbia erakutsiz. EAEko enpresarien iritziak positiboak dira datozen ekitaldietarako. Petrolio merkeak eta interes tasa apalak inbertsioa areagotuko dute.

Kanpo eskariaren ekarpena positiboa baina txikia izango da kontuan hartu den epealdi osoan zehar. Europako eta Espainiako ekonomien susperraldiak EAEko esportazioen hazkundera eragingo du, baina inportazioak ere gehituko dira barne eskarirako espero den bizitasunak bultzatuta.

Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiek, salbuespenik gabe, ekarpen positiboak egingo dizkiote balio erantsiari 2015ean eta 2016an. Eraikuntza alorreko jarduerak hazkunde tasa positiboak jasoko ditu kontuan hartu den aurreikuspen denbora osoan. Badirudi, sektorearen doikuntza amaitu dela eta zazpi urtez narriadura bizia pairatu ondoren, tasa positiboak berriro agertu dira. Industriaren jarduerak hazkunde erritmoari eutsiko dio, ekonomiaren gorakada orokorrari esker. Azkenik, zerbitzuek bere susperraldia baieztatuko dute, goranzko joera esanguratsua erakutsiz.

Enplegua dela eta, urte osoko bariazio tasa aurten %1,6 izango dela aurreikusten da. Datorren urtean, batez besteko hazkunde tasa %1,7ra iritsiko da. Taula makroekonomikoa osatzeko, langabezia tasaren aurreikuspena aipatu behar da, aurten %14,0an kokatuko dena eta datorren urtean %12,9ra jaitsiko dena, biak urteko batez bestekoan.

La demanda interna será el motor del crecimiento de la economía vasca y se prevé una aportación a dicho crecimiento de 2,3 puntos este año y de 2,2 puntos en 2016. El gasto en consumo de los hogares crecerá de forma significativa. En los próximos trimestres, se prevé una mayor creación de empleo, bajos tipos de interés, mejores condiciones crediticias e inflación limitada, que favorecerán el aumento de la confianza de los consumidores. Respecto a la formación bruta de capital, las perspectivas son de relativa fortaleza, con una clara aceleración en 2015 y 2016. La percepción del empresariado vasco parece tornarse positiva para los próximos ejercicios. Los previsibles bajos precios del petróleo y de los tipos de interés ayudarán a la expansión de la inversión.

La contribución de la demanda exterior será positiva pero exigua a lo largo de todo el horizonte de previsión. La recuperación de la economía europea y española cimentará la expansión de las exportaciones vascas, pero las importaciones crecerán favorecidas por el dinamismo esperado de la demanda interior.

Respecto a la oferta, todos los sectores, sin excepción, realizarán aportaciones positivas al crecimiento del valor añadido en 2015 y 2016. La actividad en el sector de la construcción registrará tasas interanuales positivas de crecimiento a lo largo de todo el horizonte de predicción. El ajuste en el sector parece haber llegado a su fin y las tasas positivas aparecen después de siete años de contracción intensa. La actividad industrial mantendrá un tono de crecimiento, gracias al repunte económico generalizado, mientras que el sector servicios confirmará su recuperación, con una significativa tendencia expansiva.

En materia de empleo, se prevé que la tasa de variación anual media se cifre en el 1,6% en el presente año y en el 1,7% en 2016. El cuadro macroeconómico se completa con la previsión para la evolución de la tasa de paro, que se sitúa, en media anual, en el 14,0% y 12,9% para 2015 y 2016, respectivamente.



3.4.- GIPUZKOAKO ALDUNDIA

Gipuzkoako ekonomiari dagokionez, 2016an inguruko ekonomien antzeko hazkundera espero da: barne produktu gordina %2,5 inguru haziko da termino errealetan, eta %3,8 inguru termino korronteetan.

Diru sarrera eszenarioa zerga itunduengatik 2016-2019 epealdirako jarrian aipatzen dena da:

2016rako zerga itunduengatik izango diren diru sarrerak aurreikusterakoan arau aldaketa hauek hartu dira kontuan:

Aldatu egin da lanbide jardueren eta kapital etekinei, eta ondare irabaziei aplikagarri zaien atxikipen tasa.

Hori horrela, 2016an Gipuzkoako Foru Aldundiaren baliabide erabilgarriak (zerga itunduengatik izango diren diru sarrerak, Erakundeekiko Konpromisoak murriztuta) 683 milioi izango lirатеke, hau da, 2015aren aldean %6,9 handituko lirатеke.

3.4.- DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA

Por lo que se refiere a la economía guipuzcoana, en 2016 se estima un crecimiento similar al entorno, con incrementos del PIB alrededor del 2,5% en términos reales y del 3,8% medido en términos corrientes.

El escenario de ingresos por tributos concertados para el periodo 2016-2019 es el siguiente:

Para calcular la previsión de ingresos por tributos concertados para el ejercicio 2016 se tienen en cuenta las siguientes modificaciones normativas:

Se modifica el tipo de retención aplicable a los rendimientos de actividades profesionales y de capital, y a las ganancias patrimoniales.

Así, los recursos disponibles de la Diputación Foral de Gipuzkoa de 2016 (recaudación por tributos concertados menos Compromisos Institucionales) ascenderían a 683 millones de euros, que suponen un incremento del 6,9% respecto a 2015.